

*Justizia* balioarekin jarraitzen dugu. Joan zen apirilean hasi genuen bere garapena.

## **Hezkuntza da ordena sozial, humano eta justu berri baten sustapenerako oinarri naturala eta ezinbestekoa.** (p191)

*Askotan esaten dugu bidegabekeria sozialen aurka, lansaridunen esplotazioaren aurka, aberastasunen gehiegizko pilaketaren aurka, eta beste gauza batzuen aurka borroka egin behar dugula, baina ulertu al dugu morrontza nagusia eta esklabotasunik handiena eta larriena pobrezia intelektuala dela? (p195)*

*Justizia nori berea emateko agintzen duen bertutea da... eta kooperatibismoak lanari lanarena dena ematen dio eta kapitalari kapitalarena dena. (p281)*

*Iraultza ekonomikoa iraultza morala izango da, edo ez da izango. Iraultza morala iraultza ekonomikoa izango da, edo ez da izango. (p383)*

*Kooperatibek ez dute mundu itxiak izan behar, irradiazio sozialerako zentroak baizik: ez gara konkistatutako mundu batean bizi, baizik eta justizia sozialaren eta giza ordena bidezko baten aldeko gudu zelaian. (p433)*

*Gure kooperatibek, lehenik eta behin, baliagarriak izan behar dute bertan justizia sozialaren gotorlekuak bilatzen dituztenentzat eta ez beren espiritu kontserbadorearendako babespe edo leku seguruak bilatzen dituztenentzat. (p461)*

*Agintariak eta kualifikazio handiko langileak, hots, galdi kooperatiboa gidatzen dutenak, lankidetzaren bidez honako helburu hau lortzearen arduradun nagusiak dira: enpresaren esparruan elkartasunaren zentzua txertatzea, inor behartu gabe, soilik doktrinazko edukiaren eta egungo lan munduak eskatzen duen justiziaren zentzuaren eraginez. (p482)*